



Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Krakovia**
 Egilea / Autora: **Goizalde Landabaso-Etcheverry**
 Saila / Colección: Narratiba, 138
 ISBN / EAN: 978-84-9109-737-2
 Salneurria / Precio: 17 €
 Orri kopurua / N° páginas: 160
 Formatua / Formato: Rustika / Rústica – 15 x 22 cm
 Materia: Helduentzako literatura - Literatura para Adultos

Lana / La obra

«Lasai egoteko, minik ez duela ematen eta ni emakume indartsua naizela munduari aurre egiteko. Super indartsua, aizu, baina hemen nago burdinazko helduleku bati lotuta eta zulo sakon batekin izterrean. Baina ondo, e! Eta animotsu, gaur ez bainaiz hilko. Renteriarri esan diot odola ez nahasteko, eta superbotereren bat duen norbaiten odola pasatzeko. Spider Woman edo Bat Woman izateko aukera eman diezadatela. Barre egin du, Superni izatearekin konformatu beharko dudala, eta ez arduratzeko, odol-bankutik fresko-fresko ekarriko didatela odola».

Igandea da, baina beste edozein egun izan zitekeen. Asteazkena edo osteguna. Inork ez du ospitalean sartu nahi igandeetan; asteazken edo ostegunetan ere ez. Inork ez du ospitaleetan sartu nahi. Zer gertatzen da, baina, aukerarik onena denean?

Eleberriko narratzaileak dagoeneko troka bilakatu den zuloa dauka haragi bizian. Infiniturantz doan hamar zentimetro zabaleko zauria izterrean. Mina barrurantz egiten duen uhina gero eta handiagoa da. Hondoratzearen dagoen baporea da narratzailea. Zeri eutsi diezaiokegu zulo sakonera goazenean?

Ospitaleko Larrialdietako errezelek sortutako gelatxo batean sartu dute narratzailea; bakarrik, hara zelan heldu den oso ondo ez dakiela. Noraezean dago, galduta... Zelan biziraun, zure kontrolatik kanpo dagoen egoera batean? Zerk eman diezazuke patxada egoera asaldatu honetan?

Ezinegon horretatik abiatzen da autorea bere lehen eleberri honetan. Bizitzaren atakan jarri du narratzaile protagonista, eta arma gisa ironia eta umorea eman dizkio.

Egilea / Autora:

XX. mendean jaioa, XXI. mendearen hasiera arte ez zuen kaleratu bere lehenengo liburua: *Korte bat, mesedez* (2000). Ordurako kazetaritza lanetan zebilen, EITBko irratietan, hain zuzen ere. Poesia etorri zen gero: *Jat* (2005) eta *Babeserako kopia* (2015).

Narrazio laburrak eta kronika idatzi izan ditu, hurrenez hurren: *Bränskint* (2011) eta *1362 km euri* (2019), azken hau Garazi Goiarekin batera. Berria egunkarian urteak daramatza astero zutabea idazten, eta bien bitartean, osterantzeko hedabideekin jarraitzen du kolaborazio lanak egiten.

Krakovia du lehen eleberria.

